



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEKO ADMINISTRACIOAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ARTEKOA, VITORIA-GASTEIZ HIRIAREN SUSTAPENA FINANTZATZEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA DELAKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ, PARA FINANCIAR LA PROMOCIÓN DE LA CIUDAD DE VITORIA-GASTEIZ COMO SEDE DE LAS INSTITUCIONES COMUNES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 23an.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de mayo de 2021.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Iñigo Urkullu Renteria jauna, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria, Euskal Autonomia Erkideko Administracioaren izenean eta haren ordezkari.

Bestetik, Gorka Urtaran Agirre jauna, Vitoria-Gasteizko Udalaren alkate-udalburua.

Bi ordezkarien gaitasun jurídico nahikoa aitortzen diote elkarri, eta agiri hau sinatzen dute erakunde bakoitzaren izenean, eta horretarako,

REUNIDOS:

De una parte, el Excmo. Sr. D. Iñigo Urkullu Renteria, Lehendakari del Gobierno Vasco en nombre y representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Y de otra, el Excmo. Sr. D. Gorka Urtaran Agirre, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Ambos representantes, reconociéndose mutuamente capacidad jurídica suficiente, suscriben en nombre de las respectivas instituciones el presente documento y, al efecto,

ADIERAZTEN DUTE:

I.- Euskal Autonomia Erkideko Autonomia Estatutuan hau jasotzen da: "Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez izendatuko da Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeen egoitza Autonomia Erkidegoaren lurrardearen barruan".

II.- Xedapen hori oinarri hartuta, maiatzaren 23ko 1/1980 Legeak, Euskal Autonomia Erkideko Erakundeen Egoitzari buruzkoak, Vitoria-Gasteiz izendatu zuen Eusko Legebiltzarraren eta Euskal Autonomia Erkideko Gobernuaren egoitza izateko.

III.- Horrenbestez, Vitoria-Gasteiz erakunde komunen (Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra) eta horiekin zerikusia duten gainerako erakundeen egoitza denez (Ararteko, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa),

EXPONEN:

I.- El Estatuto de Autonomía del País Vasco determina que "la designación de la sede de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco se hará mediante Ley del Parlamento Vasco y dentro del territorio de la Comunidad Autónoma".

II.- En base a dicha previsión, mediante Ley 1/1980, de 23 de mayo, de Sede de las Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco se designó a Vitoria-Gasteiz como sede de Parlamento y Gobierno de la Comunidad Autónoma.

III.- Esta circunstancia supone que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz por ser Sede de las Instituciones Comunes (Gobierno Vasco y Parlamento Vasco) y de las demás Instituciones relacionadas con ellas, como pueden ser el Ararteko, el Tribunal Vasco de Cuentas, y la Agencia Vasca de Protección de Datos,



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Vitoria-Gasteizko Udalak gastu orokorrak eta inbertsio-gastuak dakartzaten jarduerak egin behar ditu zenbait arlotan: besteak beste, segurtasunarekin eta babes zibilarekin zerikusia dutenak (ekitaldi publikoak); hirigintza eta espazio publikoen mantentze-lanak, eta historia-ondarearen babes eta hiriburuaren irudia sustatzea eta hobetzea. Jarduera horiek udal-aurrekontuetako gasto eta inbertsioak handitzea dakan, baina Udalak ezin die gasto hori benetako erabiltzaileei ordainarazi.

IV.- Hala bada, 2013. eta 2017. urteetan hitzarmen bana egin zuten Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Vitoria-Gasteizko Udalak hiriaren sustapena finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza delako.

V.- Testuinguru horretan, egungo Jaurlaritzak eta, horren barruan, Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Sailak, zeinak toki-araubidearen eskumenak baititu Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1. artikulan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dira eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen), XII. legealdi honetan Vitoria-Gasteiz sustatzen laguntzeko borondatea azaldu du, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza delako. Era berean, eta osagarri gisa, 2020tik 2024ra bitartean, hau da XII. Legegintzaldian zehar, zenbait inbertsio egiten laguntzeko asmoa duela adierazi du Eusko Jaurlaritzak, hiriko azpiegiturak eta ekipamenduak hobetu daitezen.

VI.- Horretarako, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 14. artikulutik 24. artikulura bitartean xedatutakoari jarraituz Vitoria-Gasteizko Udalaren eskumenen alorrean, Vitoria-Gasteizko Udalak izan ditzakeen gasto orokorrak eta inbertsioak finantzatzen lagundi nahi da, hain zuzen ere udal-aurrekontuetako I., II., IV., VI. eta VII. kapituluei dagozkienak, baldin eta ,oro har, helburu hauek badituzte: hiri-inguruneari egoera ezin hobean eustea, mugikortasuna,

deba realizar actuaciones que comportan una serie de gastos generales y de inversión, entre los que se pueden citar los relacionados con la seguridad y la protección civil (actos públicos); el urbanismo y mantenimiento de espacios públicos; la protección del patrimonio histórico o la promoción y mejora de la imagen de la capital, que implican un incremento en el gasto e inversiones de los presupuestos municipales, sin que el Ayuntamiento pueda repercutir ese gasto sobre las personas usuarias reales.

IV.- De tal manera, en los años 2013 y 2017 se formalizaron sendos Convenios entre la Administración General de la Comunidad Autónoma y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para financiar la promoción de Vitoria-Gasteiz como sede de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

V.- En este contexto, el ejecutivo actual, y dentro de él, el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno —competente en materia de régimen local, en virtud de lo establecido en el artículo 7.1 del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos— ha mostrado la voluntad de contribuir a la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma en esta XII Legislatura. Asimismo, y de forma complementaria, el Gobierno Vasco ha mostrado su voluntad de contribuir a la realización de una serie de inversiones que permitan mejorar las infraestructuras y equipamientos de la ciudad a lo largo del período comprendido en la XII Legislatura 2020-2024.

VI.- Con este objetivo, se pretende contribuir a la financiación, dentro de la competencia que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ostenta de acuerdo con los artículos 14 a 24 de la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, de gastos generales y de inversión en que incurra el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que, correspondiendo a los capítulos I, II, IV, VI y VII de su presupuesto municipal, tengan, con carácter general, como objetivo el mantenimiento del entorno urbano en óptimas condiciones, la movilidad,



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

herritarren eta edozein arrazoigatik hirira bisitan datozen pertsonen irisgarritasuna eta segurtasuna, eta, oro har, zerbitzu publikoak hobetzea helburu duten gastuak.

Horregatik guztiagatik, guztiengun interesei erreparatz eta abagunea aintzat hartuta, baliabideen erabilera efizientzia handiagoa lortzea helburu izanik, aurretik aipaturikoek Lankidetza Hitzarmena sinatzen dute, honako klausula hauetan adierazitakoaren arabera:

accesibilidad y la seguridad de la ciudadanía y personas que por distintos motivos visiten la ciudad, así como otros destinados a mejorar los servicios públicos en general.

Por todo ello, teniendo en cuenta la confluencia de intereses y valorando la oportunidad, en aras de una mayor eficiencia en el uso de los recursos, los arriba reunidos formalizan el presente Convenio de Colaboración en los términos de las siguientes.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Hitzarmen honen xede nagusia da aldeen eskubideak eta betebeharrok arautuko dituen esparru jurídicoa ezartztea, azken helburua lortzeko: Vitoria-Gasteiz sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza delako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Aurrekontu Orokoren bidez, helburu horretarako erabiliko duen zenbatekoarekin ordainduko ditu Vitoria-Gasteizko Udalak egingo dituen udal-aurrekontuko I., II., IV., VI. eta VII. kapituluetako gastu orokorrak eta inbertsio-gastuak, oro har xede hauetarako izango direnak: hiri-inguruneari egoera ezin hobean eustea, herritarren eta bisitarien segurtasuna bermatzea, azpiegiturak eta zerbitzu publikoak hobetzea, inbertsioak egitea mugikortasun eta irisgarritasun azpiegituretan eta Vitoria-Gasteiz sustatzea erakunde komunen egoitza delako; izan ere, maiatzaren 23ko 1/1980 Legearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen egoitza izateko izendatu baitzen.

BIGARRENA.- Aldeen konpromisoak.

Hitzarmen hau gauzatzeko, alde sinatzaileek konpromiso hauek hartzen dituzte:

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

El presente Convenio tiene como objeto principal establecer el marco jurídico que regule los derechos y obligaciones de las partes en la consecución del objetivo final que es la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La cantidad que destinará la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través de sus Presupuestos Generales a la consecución de dicho objetivo, sufragará los gastos generales y de inversión en los que incurra el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que, correspondiendo a los capítulos I, II, IV, VI y VII de su presupuesto municipal, sirvan, con carácter general, al mantenimiento del entorno urbano en óptimas condiciones, la seguridad de la ciudadanía y personas visitantes, la mejora de las infraestructuras y servicios públicos, infraestructuras de movilidad y accesibilidad y la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las instituciones comunes de conformidad con la designación realizada por la Ley 1/1980, de 23 de mayo.

SEGUNDA.- Compromisos de las partes.

Para la realización del presente Convenio, las partes firmantes asumen los siguientes compromisos:



1.- Eusko Jaurlartzaren aldetik:

Eusko Jaurlartzak, Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Sailaren bitartez, berrogei milioi euro (40.000.000 €) ordainduko ditu guztira 2021., 2022., 2023. eta 2024. urteetan; urtean hamar milioi euro (10.000.000 €), eskema honen arabera:

- 7.500.000 € Vitoria-Gasteiz hiria erakunde komunen egoitz gisa sustatzeko kontzeptuan, udalaren gastu orokorrak eta hiri-espazio publikoa birkaitzeko eta mantentzeko obrak finantzatzeko.
- 2.500.000 € Vitoria-Gasteiz hiria erakunde komunen egoitz gisa sustatzeko kontzeptuan, azpiegitura inbertsioak egiteko arlo hauetan: mugikortasuna, irisgarritasuna, ingurumen azpiegiturak, hiriko ekipamenduak eta ekipamendu soziokulturalak eta hiri berroneratzea, enplegu eta gizarte politika gaietako programak, garapen teknologiko, ekonomiko eta industriala.

Horrela, Jaurlartzak, urtero onartzen diren aurrekontuen bidez, urtean 10.000.000 euroko ekarpena egingo du, eskema honen eta aurrekontuko kapitulu hauen arabera:

1.-Por parte del Gobierno Vasco:

El Gobierno Vasco, a través del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, aportará un total de cuarenta millones de euros (40.000.000 €) durante los años 2021, 2022, 2023 y 2024, a razón de diez millones de euros (10.000.000 €) anuales, de conformidad con el siguiente esquema:

- 7.500.000 € en concepto de promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes, para la financiación de los gastos generales del ayuntamiento así como obras de rehabilitación y mantenimiento en el espacio público urbano.
- 2.500.000 € en concepto de promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes, para la ejecución de inversiones para infraestructuras en los ámbitos de movilidad, accesibilidad, infraestructuras medioambientales, equipamientos cívicos y socioculturales y regeneración urbana; programas en materia de empleo y políticas sociales, desarrollo tecnológico, económico e industrial .

De esta forma, el Gobierno aportará a través de los presupuestos anualmente aprobados, una aportación total de 10.000.000 € anuales, de conformidad con el siguiente esquema y capítulos de su presupuesto:

Ekarpenak Eusko Jaurlaritza <i>Aportaciones Gobierno Vasco</i>	Urteko guztizkoa 2021 <i>Total anual 2021</i>	Guztira 2021-2024 <i>Total 2021-2024</i>
Vitoria-Gasteiz hiria autonomía-erkidegoko erakunde komunen egoitz gisa sustatzeari dagokion kopurua, gastu orokorrak (IV. kapitulua) eta azpiegiturak eta hiri-espazio publikoko ekipamenduak (VII. kapitulua) birkaitzeko obrak finantzatzeko. <i>Cantidad correspondiente a la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma para la financiación de gastos generales (Capítulo IV), y obras de rehabilitación de infraestructuras y equipamientos en el espacio público urbano (Capítulo VII).</i>	7.500.000 €.	30.000.000 €.

Vitoria-Gasteiz hiria autonomía-erkidegoko erakunde komunen egoitza gisa sustatzeari dagokion kopurua, azpiegitura eta ekipamenduetako beste inbertsio batzuk gauzatzeko (VII. kapitulua).		
<i>Cantidad correspondiente a la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma para la ejecución de otras inversiones en infraestructuras y equipamientos (Capítulo VII).</i>	2.500.000 €.	10.000.000 €.
GUZTIRA/TOTAL	10.000.000 €	40.000.000 €.

Konpromiso horiek hitzarmen honi egingo zaizkion gehigarrien bidez gauzatuko dira urtero.

2021. urteari dagokion gehigarria hitzarmen honen sinaduren bitartez onartzen da, eta haren eranskinean jasotzen da.

2022, 2023 eta 2024. urteei dagozkien gehigarriak Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren ebatzenetan onartuko dira, hitzarmen honen seigarren klausulak aurreikusitako Jarraipen Batzordearen proposamena jaso ondoren. Gehigarri horietan, Vitoria-Gasteiz hiria autonomía-erkidegoko erakunde komunen egoitza gisa sustatzeko finantzatuko diren azpiegituren eta hiri espazio publikoen birgaikuntza-obrak eta inbertsioetarako urteko partidaren bitartez finantzatuko diren inbertsioak eta azpiegiturak jasoko dira. Edozein kasutan, Vitoria-Gasteizen etorkizuneko garapenean lagunduko duten proiektu adierazgarrietan parte hartzea ere jasoko da.

2.- Vitoria-Gasteizko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren 50 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsia) eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeari utzi gabe, Vitoria-Gasteizko Udalak honako betebehar hauek izango ditu:

La concreción anual de estos compromisos se realizará mediante Adendas al presente convenio.

La Adenda correspondiente a 2021 se aprueba con la firma del presente convenio y, como tal, recogida, en el Anexo del mismo.

Las Adendas correspondientes a los años 2022, 2023 y 2024, se aprobarán por resolución de la Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, previa propuesta de la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula sexta del presente Convenio, recogiendo las obras de rehabilitación de infraestructuras y espacio público urbano destinadas a financiar la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes, así como las inversiones e infraestructuras a financiar a través de la partida anual para inversiones. En todo caso, se contemplará la participación en proyectos emblemáticos que coadyuven en el desarrollo futuro de Vitoria-Gasteiz.

2.- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se compromete a:

Sin perjuicio de las obligaciones señaladas en el artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre así como en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que en su caso resulten aplicables, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se obliga a:

- a) Emandako ekarpen ekonomikoa laguntzaren xede diren gastuak ordaintzeko erabiltzea.
- b) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari ematea jarduketak egitearen ondoriozko administrazio-kudeaketa egiteko behar diren datu guztiak.
- c) Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoan dagozkion kontrol-jarduerak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokoren kontura eskuraturatako dirulaguntzei dagokienez. Halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurriak ere betetzea.
- d) Gastuak laugarren klausulan ezarritako moduan justifikatzea.
- e) Seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordean aktiboki parte hartzea eta laguntza jasotzeko baldintzetan gerta litekeen edozein aldaketaren berri ematea.
- f) Emandako dirulaguntzaren publizitateari eta zabalkundeari buruz zortzigarren klausulan ezarritako eginbeharrik betetzea.
- g) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeari eta dirulaguntza kudeatzeaz arduratuko den organoari jakinaraztea.
- a) Destinar la aportación económica otorgada a sufragar los gastos para los que se ha otorgado la ayuda.
- b) Aportar al Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno cuantos datos se requieran para la gestión administrativa derivada de la realización de las actuaciones.
- c) Someterse a las actuaciones de control que corresponden a la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda en relación con las subvenciones percibidas con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, además de las previstas por la normativa específica del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
- d) Justificar los gastos del modo establecido en la cláusula cuarta.
- e) Participar de manera activa en la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula sexta y poner en su conocimiento cualquier variación que pudiera producirse en las condiciones en las que se recibió la ayuda.
- f) Cumplir las obligaciones establecidas en la cláusula octava relativas a publicidad y difusión de la subvención otorgada.
- g) Comunicar a la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula sexta y al órgano encargado de gestión de la subvención la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos que reciba para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

HIRUGARRENA. Vitoria-Gasteiz Green Deal proiektua garatzeko ekimenak.

Jaurlaritzak, eskumena duten sailek egiten duten jardueraren bitartez, **Vitoria-Gasteiz Green Deal** proiektua garatzeko ekimenak egingo ditu 2021-2024 aldian, honako printzipio gidari hauen arabera:

- Garapen ekonomiko jasangarria. Ekonomia dinamikoa, berrikuntzan eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritua, aukera- eta eraldaketa-elementu izan dadin, non tokiko industria babestuta sentituko baita eta enplegu-aukerak eskainiko dituen ekintzailetzako ekosistema berritzaile bat izango baitu.
- Gizarte-kohesioa eta zerbitzu publikoak. Pertsonak zaintzen dituen hiri bat, gizarte-babeseko sistema moderno eta zuzena duena, eta auzoen arteko oreka bilatzen duen hiri-garapena duena.
- Ingurumenaren jasangarritasuna. Hiri- eta natura-ingurunea edukitzea, non ingurumena errespetatzeak eta naturguneak berreskuratzeak bizi-kalitatea hobetzeko balioko duten.

Adibide gisa, aipatzeko da:

- Inbertsioak egitea mugikortasun jasangarriaren arloan.
- Inbertsioak egitea hiri-azpiegitura berdeetan.
- Inbertsioak egitea logistikaren.
- Inbertsioak egitea hiria berroneratzeko, jasangarritasun-irizpideak izanda.
- Inbertsioak egitea kultura-, hezkuntza-, kirol- eta zerbitzu-azpiegituretan.
- Inbertsioak egitea ingurumenean.
- Enplegu eta gizarte-politiketako programak.
- Garapen ekonomiko, industrial eta teknologikoko programak.

TERCERA. Iniciativas de desarrollo del Proyecto Vitoria-Gasteiz Green Deal.

El Gobierno, a través de la actuación de los diferentes Departamentos competentes, afrontará a lo largo del periodo 2021-2024 aquellas iniciativas que contribuyan a desarrollar el proyecto **Vitoria-Gasteiz Green Deal** guiado por los siguientes principios rectores:

- Desarrollo económico sostenible. Una economía dinámica y basada en la innovación y el respeto al medio ambiente como elemento de oportunidad y de transformación, en el que la industria local se sienta arropada y apoyada y con un ecosistema de emprendimiento innovador que ofrezca oportunidades de empleo.
- Cohesión social y servicios públicos. Una ciudad que cuida de las personas, con un sistema de protección social moderno y justo y con un desarrollo urbano que busca el equilibrio entre los diferentes barrios.
- Sostenibilidad medioambiental. Un entorno urbano y natural en el que el respeto al medio ambiente y la recuperación de espacios naturales sirva para mejorar la calidad de vida.

A modo de ejemplo cabe señalar:

- Inversiones en materia de movilidad sostenible.
- Inversiones en infraestructuras verdes urbanas.
- Inversiones en el ámbito de la logística.
- Inversiones en materia de regeneración urbana con criterios de sostenibilidad.
- Inversiones en infraestructuras culturales, educativa, deportivas y de servicios.
- Inversiones en materia de medio ambiente.
- Programas de empleo y políticas sociales.
- Programas de desarrollo económico, industrial y tecnológico.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Jaurlitzak **Vitoria-Gasteiz Green Deal** proiektua garatzeko hartutako konpromisoa ekimen bakoitzaren gaineko eskumena duten sailen aurrekontuen bidez gauzatuko da urtero.

La concreción anual del compromiso del Gobierno con el desarrollo del proyecto **Vitoria-Gasteiz Green Deal** se realizará a través de los correspondientes presupuestos de los Departamentos competentes sobre cada una de las iniciativas.

LAUGARRENA.- Ordaintzeko eta zuritzeko modua.

1.- Egindako gastua dirulaguntzaren xedea betetzeko baliatu dela egiaztu ondoren ordainduko da urte bakoitzari dagokion kopurua. Horretarako, factura originalak edo haien fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dira, edota ordaindutako zenbatekoen ziurtagiri xehatua, Udalbatzarreko idazkari nagusiak nahiz udaleko kontu-hartzaile nagusiak egina. Dirulaguntzaren ordainketa partzialak egin daitezke, betiere, azaldutako baldintzen arabera, gastuak aurrez justifikatzen badira.

2.- Urte bakoitzari dagokion zenbatekoa honela justifikatu behar da:

a) Vitoria-Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza gisa sustatzen bideratutako kopurua, udalaren gasto orokorrak finantzatzeko, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen.

b) Vitoria-Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza gisa sustatzen bideratutako kopurua, hiri-espazio publikoa birgaitzeko obrak eta funtsezko azpiegitura publikoen mantenzeko gastuak finantzatzeko, eta hitzarmen honen bitartez dirulaguntza jasoko duten azpiegitura eta ekipamendu publikoetako inbertsioak, hurrengo ekitaldiko urtarilaren 31 baino lehen.

CUARTA.- Forma de pago y justificación.

1.- El abono de cada anualidad se realizará previa justificación del gasto realizado en el cumplimiento de la finalidad para la que se concede, mediante facturas originales, copias compulsadas de las mismas, o certificación detallada de las cantidades abonadas, expedida por el Secretario o Secretaria General del Pleno o por el Interventor o Interventora General Municipal. Se podrán realizar pagos parciales de la subvención, que se materializarán previa justificación, en los términos expuestos del gasto realizado.

2.- La cuantía correspondiente a cada anualidad deberá justificarse de la siguiente manera:

a) La cantidad destinada a la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz, como sede de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi para cubrir la financiación de los gastos generales del Ayuntamiento, antes del 31 de diciembre de cada ejercicio.

b) La cantidad destinada a la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz, como sede de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para cubrir la financiación de las obras de rehabilitación del espacio público urbano y gastos de mantenimiento de infraestructuras públicas esenciales; así como las inversiones en infraestructuras y equipamientos públicos objeto de subvención a través del presente convenio, antes del 31 de enero del ejercicio siguiente.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Vitoria-Gasteizko Udalak Jarraipen Batzordeari egindako proposamen justifikatuaren arabera, hitzarmen honen bidez finantzatutako obrak eta inbertsioak gauzatzeko eta justifikatzeko epea luza daiteke, baina luzapen hori, hala badagokio, Gobernu Kontseiluak onartuko du.

3.- Nolanahi ere, Vitoria-Gasteizko Udalak bost urtez gordeko ditu Hitzarmen honen xedea gauzatzeko gastuak egiazatzeko agiri guztiak, eta Eusko Jaurlaritzaren esku egongo dira dokumentu horiek, egin beharreko egiaztapenak egin ditzan.

BOSGARRENA.- Hitzarmen hau egituratzea, sustatzea eta koordinatzea.

Eusko Jaurlaritzak, Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren bidez, hauek egingo ditu:

- Hitzarmen hau egoki gauzatzeko behar diren koordinazio-mekanismoak antolatu.
- Hitzarmen honen xedea betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen ekintza guztiak garatu eta gauzatu.
- Seigarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordeko buru izan eta haren jarduna bultzatu.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.

1.- Emandako finantzaketaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkarik osatuko dute: Eusko Jaurlaritzaren bi ordezkarik, Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Sailekoak, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko beste bik. Eusko Jaurlaritzak batzorde horren bileretara beste sail batzuetako langileei deitzeko aukera izango du, aholkularengisa, baldin eta hitzarmen honen bidez araututako finantzaketarako emandakoa zertarako erabili den egiaztatzearekin zerikusia badute.

A propuesta justificada del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz formulada ante la Comisión de Seguimiento, podrá concederse una prórroga para la ejecución y justificación de las obras e inversiones financiadas a través del presente Convenio; prórroga que será aprobada en su caso, por Consejo de Gobierno.

3.- En cualquier caso, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz conservará durante cinco años a disposición del Gobierno Vasco la totalidad de los justificantes y documentación acreditativa de los gastos generados en el desarrollo del objeto del presente Convenio, al objeto de llevar a cabo las comprobaciones oportunas.

QUINTA.- Articulación, impulso y coordinación del presente Convenio.

El Gobierno Vasco, a través del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno y del Departamento de Economía y Hacienda, procederá a:

- Articular los mecanismos de coordinación necesarios para la adecuada ejecución de este Convenio.
- Desarrollar y ejecutar cuantas acciones sean necesarias para el cumplimiento del objeto del presente Convenio.
- Presidir la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula sexta e impulsar su funcionamiento

SEXTA.- Comisión de seguimiento del Convenio.

1.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento de la financiación otorgada, compuesta por cuatro representantes, dos del Gobierno Vasco, a través del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, y dos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. El Gobierno Vasco, podrá convocar a las sesiones de dicha Comisión en calidad de asesor o asesora a personal de otros Departamentos que pudieran tener relación con la comprobación del destino otorgado a la financiación regulada en virtud del presente Convenio.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2.- Jarraipen Batzordeko Lehendakaritzan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra arituko da; hain zuzen ere, Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako kide bat. Idazkari-lanak Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako langileek egingo dituzte.

3.- Batzordeak berak onartzen dituen funtzionamendu-arauen arabera arautuko da klausula honetan finkaturiko Batzordea, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Titluaren II. Kapituluko 3. Atalean kide anitzeko organoentzat aurreikusitako oinarrizko xedapenak errespetatu behar dituzte arau horiek.

4.- Jarraipen Batzordea gaituta dago urteroko gehigarrietan aurreikusten diren inbertsio-gastu zehatzak eta dagozkien zenbatekoak aldatzeko, 2021. urteko gehigarria barne, betiere errespetatuz adostutako urteko ekarpenaren zenbatekoa eta Vitoria-Gasteiz hiria erakunde komunen egoitza gisa sustatzeari eta azpiegiturak hobetzeko inbertsioei dagozkien zenbatekoen banaketa.

ZAZPIGARRENA.- Bateragarritasuna

Vitoria-Gasteizko Udalak jasotako ekarpen ekonomikoa bateragarria da helburu eta xede bererako beste administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako ekarpenenkin.

Nolanahi ere, ekarpen ekonomikozen zenbatekoak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren guztirako kostua.


Dirulaguntzen batura aipatu kostua baino handiagoa bada, soberakin hori bateraezintzat joko da, eta Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Sailak eman beharreko zenbatekoari kenduko zaio.

2.- Ostentará la Presidencia de la Comisión de Seguimiento una persona representante de la Viceconsejería de Relaciones Institucionales del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno. Ejercerá las funciones de Secretaría, personal adscrito a la Viceconsejería de Relaciones Institucionales del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

3.- La Comisión regulada en la presente cláusula se regirá conforme a las normas de funcionamiento que la misma apruebe, las cuales respetarán las disposiciones de carácter básico previstas para los órganos colegiados en la sección 3^a del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

4.- La Comisión de Seguimiento está facultada para modificar los gastos e inversiones concretos previstos en las adendas anuales, incluida la correspondiente a 2021, así como los importes respectivos respetando en todo caso el importe de la aportación anual acordada y la distribución de los importes correspondientes a la promoción de la ciudad de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes, y a inversiones de mejora de infraestructuras.

SÉPTIMA.- Concurrencia.

La aportación económica recibida por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz es compatible en su percepción con aquellas otras que, con el mismo objeto y finalidad, pudieran ser otorgadas por cualquiera otra Administración o ente público o privado. En cualquier caso, el importe de las aportaciones económicas no podrá superar el coste total de las actividades objeto de financiación.

 Si la suma de las ayudas superase el citado coste, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso y se reducirá el importe de la aportación a conceder por el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ZORTZIGARRENA.- Publizitatea eta zabalkundea.

Vitoria-Gasteizko Udalak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza denez, udalerriari buruz hedatutako informazio, komunikazio, publizitate eta zabalkunde-jarduera orotan berariaz adieraziko du finantziazioa Eusko Jaurlaritzak eman duela, eta Eusko Jaurlaritzaren logotipo ofiziala erantsiko da, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duenak, xedatutakoari jarraituz.

Klausula hau betetzen ez bada, Eusko Jaurlaritzako Gobernanzta Publiko eta Autogobernu Sailak, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren bidez, errekerimendua helaraziko dio Vitoria-Gasteizko Udalari, adostutakoa betetzeari ekin diezaion. Adostutakoa behin eta berriz betetzen ez bada (bitan betetzen ez bada, hala dela joko da), urte horri dagokion dirulaguntza kentzea ekar dezake.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmenaren izaera juridikoa eta interpretazioa.

1.- Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoaren arabera interpretatu eta garatuko da;

(ui)
zehazki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluan eta 140.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta aplikatu beharreko toki-araubidearen arabera.

(J)
v
2.- Hitzarmenak edo hitzarmena betearazteak sortarazitako interpretazio-arazoak Jarraipen Batzordeak konponduko ditu seigarren klausulan esandakoari jarraiki, eta, hala ezin bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumena izango dira, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

OCTAVA.- Publicidad y difusión.

En cualquier tipo de información, comunicación, publicidad y actuaciones de difusión que se realicen por el Ayuntamiento sobre el municipio de Vitoria-Gasteiz como sede de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco se señalará expresamente que la financiación proviene del Gobierno Vasco, exhibiéndose el correspondiente logo oficial del mismo, de conformidad con lo establecido en el Decreto 318/1999, de 31 de agosto, por el que se regula el manual de identidad corporativa del Gobierno Vasco.

En caso de incumplimiento de la presente cláusula, el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco a través de la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos ejercerá un requerimiento al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para que proceda a subsanar dicho incumplimiento. El incumplimiento reiterado, considerado como tal, el haberse realizado en dos ocasiones, podrá dar lugar a la retirada de la subvención correspondiente a dicha anualidad.

NOVENA.- Naturaleza jurídica e interpretación del Convenio.

1.- El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico aplicable a los convenios de colaboración entre Administraciones Públicas,

en concreto por lo dispuesto en el capítulo VI del Título Preliminar y artículo 140.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y de la legislación de régimen local aplicable.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento según lo referido en la cláusula sexta; si no fuera posible serán de competencia del orden jurisdiccional contencioso administrativo, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HAMARGARRENA.- Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta xedearren amaierara arte iraungo du, lau urte gehienez ere.

Aurreko atalean aipatutako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea.

HAMAIKAGARRENA. – Hitzarmena ez betetza eta hutsaltzea.

Vitoria-Gasteizko Udalak honako hauek justifikatzen ez baditu: jasotako funtsak zertarako erabili dituen, ekarpeta eman zen helbururako erabili den, ekarpeta ekonomikoa emateko ezarritako baldintzak bete dituen, edo, oro har, hitzarmen honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, itzuli egin beharko ditu jasotako kopuruak gehi laguntzak ordaindu zirenetik aplikatzekoak diren legezko interesak. Horretarako, arau hauek ezarritako prozedura jarraituko da: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak —Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokoren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzultzeen erregimen orokorra arautzen duenak, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak eta betebeharrauk xedatzen dituenak—. Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztiatarako.

DÉCIMA.- Vigencia.

El presente Convenio entrará en vigor en la fecha de su formalización y mantendrá su vigencia hasta la finalización de su objeto, con el límite temporal de cuatro años.

En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del mismo podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

DECIMOPRIMERA.- Incumplimiento y rescisión del convenio.

En el supuesto de que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz incumpla la obligación de justificar la aplicación de los fondos percibidos; la finalidad para la que la aportación fue concedida; las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la aportación económica o, en general, incumpla las obligaciones establecidas en el presente Convenio, vendrá obligado a reintegrar las cantidades concedidas más los intereses legales que resultaren de aplicación desde el momento del pago de las ayudas, siguiendo para ello el procedimiento establecido al efecto en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre; y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HAMABIGARRENA.- Emandako lagunza behar bezala erabiltzen dela egiaztatzea.

Autonomia Erkidegoak, teknikarien bitartez, dirulaguntzaren xede diren obrak behar bezala egin direla egiaztu ahal izango du, bai obrak egiterakoan, bai amaitutakoan, eta egiaztatuko du, halaber, funtsak ongi kudeatu direla. Horretaz gain, erakunde onuradunari eskatu diezaioke finantzatutako jarduera egiteari buruzko informazioa emateko.

HAMAHIRUGARRENA.- Finantzaketa-bermea.

Hitzarmen honetan ezarritako ekonomia-konpromisoaren ordainketa betetzen ez bada, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Vitoria-Gasteizko Udalari egin ez zaizkion finantza transferentziak atxikitzeko sistema ebatzik du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 24.1 artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Eta, ados daudela adierazteko, agiri honen bi ale sinatu dituzte parte-hartzaileek, goiburuan adierazitako lekuau eta egunean.

DECIMOSEGUNDA.- Comprobación de la adecuada utilización de la ayuda concedida.

La Comunidad Autónoma, por medio de personal técnico propio, podrá comprobar la correcta ejecución de las obras objeto de subvención, tanto durante su ejecución como a la finalización de las mismas, y comprobar la gestión de la correcta utilización de los fondos, así como requerir a la Entidad beneficiaria la aportación de información sobre el ejercicio de las actuaciones financiadas.

DECIMOTERCERA.- Garantía De Financiación.

En caso de incumplimiento del pago del compromiso económico previsto en el presente acuerdo, el Consejo Vasco de Finanzas acordará un sistema de retención de las transferencias financieras no realizadas al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, ello en virtud de lo establecido en el artículo 24.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

Y en prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente documento por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

IÑIGO URKULLU RENTERIA
LEHENDAKARIA
EL LEHENDAKARI

GORKA URTARAN AGIRRE
VITORIA-GASTEIZKO ALKATE-UDALBURUA
EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE
VITORIA-GASTEIZ



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Lankidetza-hitzarmenaren eranskina

2021eko EKITALDIKO GEHIGARRIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENARENA, VITORIA-GASTEIZ HIRIAREN SUSTAPENA FINANTZATZEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA DELAKO.

Anexo al Convenio de colaboración

ADENDA CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO ECONÓMICO 2021 DEL CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ, PARA FINANCIAR LA PROMOCIÓN DE LA CIUDAD DE VITORIA-GASTEIZ COMO SEDE DE LAS INSTITUCIONES COMUNES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA EUSKADI

1. 2021eko ekitaldiari dagozkion gastuak eta obrak udalaren gasto orokorrak eta hiri-espazio publikoa birgaitzeko eta mantentzeko obrak finantzatzeko.

1.1. Gasto orokorrak

Gehienez ere sei milioi eta bostehun mila euroko diru-ekarprena -6.500.000 €-, gasto hauek ordaintzeko izango da:

- Argiteria publikoa (argindarraren kontsumoa eta konponketak).
- Bide eta azpiegitura publikoak mantentzeko lanak (kontserbazio- eta konponketa-gastuak).
- Bide-garbiketa eta hiri-hondakin solidoen bilketa eta garraioa (garbiketa-zerbitzua).
- Bidaiaien hiri-garraioa (Tuvísari egindako ekarprena).
- Herritarren segurtasuna (Udalzaingoa, langile-gastuak eta gasto arruntak).

1. Gastos y obras correspondientes al ejercicio 2021 para la financiación de los gastos generales del ayuntamiento así como obras de rehabilitación y mantenimiento en el espacio público urbano.

1.1. Gastos generales

Esta aportación económica por un importe máximo de seis millones quinientos mil euros -6.500.000 €- sufragará los siguientes conceptos:

- Alumbrado público (consumo luz y reparaciones).
- Mantenimiento de vías e infraestructuras públicas (gastos conservación y reparaciones)
- Limpieza viaria-recogida y transporte RSU (servicio de limpieza)
- Transporte urbano de personas viajeras (aportación a Tuvisa)
- Seguridad ciudadana (Policía Municipal, gastos personal y gastos corrientes)

1.2 Hiri-espazio publikoa birgaitzeko eta mantentzeko obrak.

Gutxienez milioi bat euro -1.000.000 €- hiri-espazio publikoa birgaitzeko obrak eta funtsezko azpiegitura publikoak mantentzeko gastuak finantzatzen bideratuko da. Udalak era horretako jarduketak garatzeko zenbatekoak gehitu ahal izango ditu. Bereziki, honako hauen finantzaketa hartuko da parte:

1.2 Obras de rehabilitación y mantenimiento en el espacio público urbano.

Un importe mínimo de un millón de euros - 1.000.000 €- será destinado a participar en la financiación de obras de rehabilitación del espacio público urbano y gastos de mantenimiento de infraestructuras públicas esenciales, pudiendo el Ayuntamiento incrementar las cuantías al desarrollo de este tipo de actuaciones. En particular, se participará en la financiación de las siguientes:

Hiri-espazio publikoa birgaitzeko obrak.	Aurreikusitako kostua: Coste estimado
Obras de rehabilitación en el espacio público urbano	
Ariznabarrako aparkalekua <i>Parking Ariznavarra</i>	70.000,00 €
Julian Arrese kalean aparkalekua eraikitza eta Forondako ateko oinezkoen bideko iragazkortasuna hobetzea <i>Construcción aparcamiento en C/ Julian Arrese y mejora permeabilidad peatonal Portal de Foronda</i>	750.000,00 €
Auzoetako argiteria hobetzea <i>Mejora alumbrado barrios</i>	200.000,00 €
Azpiegitura berdeak <i>Infraestructuras verdes</i>	100.000,00 €
Alde Zaharra, Goiuri Jauregiko lorategiak eta Etxanobe lorategiak <i>Alde Zaharra, jardines Villa Suso y jardines Etxanobe</i>	500.000,00 €
Terrorismoaren Memorialaren ingurua eraberritzea <i>Reforma entorno Memorial Terrorismo</i>	300.000,00 €
Bide-gorrietako inbertsioak <i>Inversiones carriles bici</i>	150.000,00 €
Trafikoa lasaitzeko eta bide-segurtasuneko inbertsioak <i>Inversiones calmados tráfico y seguridad vial</i>	100.000,00 €
Inbertsioak, guztira	
Total inversiones	2.170.000,00 €

2. 2021ean, azpiegitura eta ekipamendu publikoak finantzatzeko inbertsioak.

Osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du gehienez ere bi milioi eta bostehun mila euro –2.500.000 €– emateko beste inbertsio eta ekipamendu publiko batzuk finantzatzeko, eskema eta zerizan honen arabera:

2. Inversiones a financiar en infraestructuras y equipamientos públicos en 2021.

De forma complementaria, el Gobierno Vasco se compromete a financiar por un importe máximo de dos millones quinientos mil euros – 2.500.000 € – otras inversiones y equipamientos públicos de conformidad con el siguiente esquema y naturaleza:

Inbertsio eta ekipamendu publikoak <i>Inversiones y equipamientos públicos</i>	Aurreikusitako kostua: <i>Coste estimado</i>
Hilerrietako inbertsioak <i>Inversiones en cementerios</i>	400.000,00 €
Gasteiz Antzokia <i>Gasteiz Antzokia</i>	500.000,00 €
Kirol-instalazioetako inbertsioak <i>Inversiones instalaciones deportivas</i>	450.000,00 €
Aranbizkarrako aldagelak <i>Vestuarios Aranbizkarra</i>	300.000,00 €
Ikastetxeetako obrak <i>Obras edificios escolares</i>	300.000,00 €
Zentroetako eta lokaletako inbertsioak <i>Inversiones en centros y locales</i>	350.000,00 €
Udal eraikinetako inbertsioak <i>Inversiones edificios municipales</i>	450.000,00 €
Berritze-lanak eta asfaltatze integralak <i>Reformas y asfaltados integrales</i>	1.250.000,00 €-
Beste inbertsio eta ekipamendu publiko batzuk, guztira <i>Total otras inversiones y equipamientos públicos</i>	4.000.000,00 €

Hemen jasotako ekimen eta proiektuetako gastuaren barne-banaketa orientagarria baino ez da, eta Jaurlaritzak proiektu eta ekimenetarako egindako ekarpenaren behin betiko banaketa horietako bakoitzari esleitutako aurrekontuaren araberakoa izango da.

La distribución interna del gasto en las iniciativas y proyectos recogidos es meramente orientativa y la distribución definitiva de la aportación del Gobierno Vasco en los diferentes proyectos e iniciativas estará en función del presupuesto efectivamente adjudicado en cada una de ellas.